

1936ko brigadistak

Elkartasuna lepoan hartuta

1936ko Gerra hastean, bazter guztietako boluntarioek eman zuten izena Espainiako Errepublikaren alde borrokatzeko. 53 naziotako milaka borrokalari aritu ziren Brigadetan. Tartean izan zen Theodulo Francos baionarra.

JOSU CHUECA

ALDEZ AURRETIK, ehunka boluntario elkar-tzen hasiak ziren jadanik, gehienak Bartzelona ospatzeaz zegoen “Espartakiada” delakoan parte hartzeko. Berlingo Jokoen “Olinpiada alternatibo” horretan parte hartu zutenek aukera izan zuten Goded jeneralak gidatutako matxinoen porrota bertatik bertara ikusteko. Aragoi aldean eta batez ere Madrilen, gerrak aurrera egin zuen ordea, eta horietako asko CNT-k, POUM-k eta PSUC-k sortutako zutabeetan sartu ziren, lehen nazioarteko taldeak osatuz.

1936ko irailetik aurrera, lehendik zeuden boluntarioei munduko alderdi komunistek bidalitako miliziano taldeak gehitu zitzaizkien. Izan ere, Britainia Handiak, Frantziak, Italiak, baita Sobietar Batasunak ere “Parte ez hartzearen Politika” sinatu berria zuten

Brigadistak Bartzelonako agur ekitaldian, 1938ko urrian. Argazkia Robert Capak atera zuen.

arren, ordurako bi egoera ezberdin ikus zitezkeen: Alde batetik, matxino frankistek, nazien eta faxisten laguntza zela medio, gerra irabazi zezaketen –Irun eta Donostia hartzeaz gain, iparraldetik eta Andaluziatik joandako tropak Madrilgo atarian zeuden–. Bestetik, Nazioarteko Batzordeak Gobernu errepublikarra kate motzean lotu zuen, armak erosteko eta laguntzak jasotzeko bide legalak itxi baitzizkion.

Jaramatik Ebrora: Baionako komunistak baten ibilerak

Egoera horrek akuilatu zuen esparru ezkertiarren elkartasuna. Errepublikanoek Irungo muga galdu ostean, trenez eta barkuz Bartzelonara iritsitakoek Albacetera jo zuten; hor kokatu zuten Nazioarteko Brigaden egoitza nagusia. 35.000 brigadista inguru elkartu ziren bertan. Kultura, hizkera eta jatorri oso desberdinak izan arren, bat egin zuten faxismoaren aurka borrokatzeko grinan. Armada errepublikanoak izan zituen gabeziak jasan zituzten brigadistek, baina arrakastaz eutsi zieten faxisten erasoaldiei. Erabakigarria izan zen, esaterako, beren parte hartzea Madrilgo defentsan, 1936ko azaroko egun zailenetan, baita Jaramako eta Guadalajarako borroketan, Belchitekoan eta Ebrokoan... Horietan guztietan –baita II. Mundu Gerrako beste zenbaitetan ere– aritu zen Theodulo Francos, Baionan hezi eta hazi zen gazte komunistak. Denboraren poderioz Nazioarteko Brigadista haiek joan zaizkigunean, berak gogo handiz oroitzen ditu orduko lagunak eta ibilerak:



Theodulo Francos (Baiona, 1914)

«Franco kafea ezin harturik utzi genuen»

Mendea betetzear zara, jardun politikoan ere aspaldidanik zabilta, noiz eta nola hasi zinen?
Sacco eta Vanzettiren aldeko mobilizazioekin. Nik orduan 14-15 urte nituen eta oroitzen naiz Baionan, Saint Esprit auzoan, geltokiaren aurrean hain zuzen ere, egin genituela hainbat elkarretaratze eta Frantziako jendarmeak gogor aritzen zirela gure kontra. Gazteri Komunistetan eman nuen izena eta hasi nintzen propaganda lanetan, kartelak eta horrela paratzen. Nire aita Forges de l'Adour enpresan ari zen lanean eta greba luze baten ondorioz kanporatu egin zuten. Testu-guru horretan ezkertera jo nuen. Gero, Espainiako Errepublikaren garaian, Asturiasko Iraulzaren ondorioz ihesi zetozen mugaz bestaldeko komunistak pasatzen aritu ginen, mugalari eta laguntzaile gisa.

Gerrara ustekabean joan zinen, ezta?

Beno, Espainiakoek agian bai, baina guk ez genuen espero horrelako gerra piztuko zenik. Gu Bartzelonara joan ginen uztailearen 17an. Berlineko Olinpiadak ari ziren jokatzeko eta ezkertiarrei bururatu zitzaizkien nolabaiteko Olinpiada herrikoiak egitea. Bartzelonara iritsi berriak ginela, militarren altxaldia hasi zen. Hor ere hainbat militarrek bat egin zuten matxinoekin eta kuarteletatik atera ziren. Baina aurrez aurre topatu zituzten langileak, anarkistak, komunistak... eta kale borroka horietan guk ere parte hartu genuen. Bertako militarrek porrot egin ostean, batzuoek esan genuen: "Aizak, Espainia Bartzelona baino gehiago duk!". Katalunia utzi eta Madril aldera abiatu ginen, nola edo hala laguntzera.

Nazioarteko Brigadak oraindik jaio gabe eta zuek kanpotarrak... Nola egokitu zineten giro horretara?

Bai, hala zen, baina alderdiek edo anar-

"Saiatu ginen batailoiak hizkuntzen arabera antolatzen, baina batzuetan ezinezkoa zen agintariak zioena ulertzea"

kistek eraturiko zutabeetan lerrotatu ginen. Guk *La Commune de Paris* deituriko batailoi antzekoa osatu genuen eta hor aritu ginen Madril, Albacetera joan baino lehen. Geroxeago, urrian, hiri horretara hasi ziren joaten nazioarteko brigadistak eta gu ere hara joan ginen.

Hala ere, Madril defendatzera itzuli zineten. Nola izan ziren borrokaldi horiek?

Faxistek gero eta hurbilago zuten Madril. Azaroaren 7tik aurrera izan ziren borrokaldietan aritu ginen brigadatarok. Guk jende asko galdu genuen Puente de los Franceses-en, Hiri Unibertsitarioan, baina eutsi genien faxistei eta Madrilera tinko jarraitu zuten. Pentsa, Madril galtzekotan, dena pikutara zihoan. Franco esan omen zuen erasoaldi

hori hasi zutenean: "Igandean Puerta del Solen kafea hartuko dut", ba ez! Kaferik gabe utzi genuen. Baina asko kosta zitzaigun, Madrilgo frontea oso zabala zen eta gertu gertuko borrokak izan genituen. Hiri Unibertsitarioan esate baterako, batzuetan eraikuntza berean tiroka eta bonbaka aritu ginen. Baina guk eutsi eta frankistek amore eman behar izan zuten.

Galera asko izan zenituzten, Brigadak berregituratu behar izan al zenituzten?

Ni neu zauritu ninduten eta Albacetera jo behar izan nuen. Baina zaurituz eta hildakoez aparte, hasieran saltsa dezente genuen Brigadetan. Saiatu ginen konpainiak eta batailoiak hizkuntzen arabera antolatzen, baina batzuetan ezinezkoa zen agintariak zioena guztiek ulertzea. Armeekin antzeko zerbait gertatu zen, batzuetan munizio zehatza behar eta beste eratakoea ekarri! Baina brigadisten arteko giroa ona, oso ona izan zen.

Hala ere, beti ez zen giro onik izango...

Izan ziren gure artean hainbat lapur



eta gaizkile, baina horien kontra Brigaden arduradunek gogor jo zuten. Hori ez zen soilik Brigaden arazoa, beldurra eta diziplina eza nagusitzen ziren eta zaila zen hura berbideratzea. Oroitzen naiz behin Belchiten geundela, goizean esnatu ginenean, ondoan egon beharko lukeen batailoi oso bat ihesari emana zegoela. Gerran horrelakoak garesti ordaintzen dira eta guk askotan jasan genituen.

Belchite aipatu duzu. Bai hor eta baita beste borroka ezagunetan aritu zineten, Brunetekoan, Ebrokoan... Zein izan zen gogorrena?

Hildako gehiago izan genituen Madrilen, baina gogorragoa izan zen Ebrokoa. Hasieran guk hartu genuen aurre baina gero frankistek atzera egin arazi eta ezereztu egin gintuzten. Bataila hura galdu ostean ikusi genuen ezinezkoa zela gerrari buelta ematea. Gure aldeko buruzagi politikoek ere orduez geroztik oso zaila jotzen zuten garaipen militarra. Nazioartean jokatu nahi izan zituzten azken kartak eta hortik etorri zen Nazioarteko Brigadak erretiratzeko keina. Negrinek Espainiatik alde egiteko gonbidatu gintuen eta brigadista gehienek horrela egin zuten, pentsatuz faxistek bere aldean zituzten CTVkoak eta Condor Legiokoak modu berean joango zirela. Gizajoa! Gurek bai, alde egin zuten frontetik, baina besteek hor jarraitu zuten gerra amaitu arte.

Zuk eta beste hainbat brigadistek ere bai.

Esan zigutenean Kataluniara jo behar genuela, 300 brigadista inguruk erantzun genuen gerrak jarraitzen zuela eta nahiago genuela gelditzea. Ez ginen izan Bartzelonan brigadistek agurra egiteko ekitaldian; Pozobancora, Andaluziako frontera joan ginen eta hiru hilabete eman genituen han, dena galduta zegoenean, Mediterraneora mugitu ginen arte. Alacant zen gure aterabidea. Baina hor, jakina, oso gutxi izan



Theodulo Francos gerrak argazki batean (erdian), brigadisten jantzia soinean duela.

zuten alde egiteko aukera. Kaian gelditu ginen barkuen zain, baina alferrik, italiarrek eta frankistek preso hartu gintuzten.

Frankisten presondegiak barrutik ezagutu zenituen gero. Nola egin zenuen bizirik ateratzeko? Almendrosen izan ginen lehenik eta gero Valentziako Porta Coelin. Horren ondoren, Miranda de Ebroko kontzentrazio zelaian milaka lagun pilatu ginen. Bukatu gabe zegoen eta hor aritu ginen, gosez eta egarriz jota, bertako lanak amaitzen. Hiru aldiz alde egin nuen hortik eta hirutan, Madril aldean harri-patu ninduten. Azkenean, Gurutze Gorriak egindako trukaketa bati esker etxera nindoa-nean, muga zeharkatu bezain laster lagun batek esan zidan alde egiteko. 1940ko ekaina zen eta ordurako alemaniarrak Bordelen zeuden. Barku poloniar batean Donibane Lohitzunetik Britainia Handira jo behar izan nuen, Baiona zapaldu ere egin gabe. ■

www.argia.com/diaporamak/brigadistak helbidean, brigadisten argazki galeria.



TALLERES

Mitxelena s.coop.

Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000 · Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Eziago poligonoa, 21 · Hernani -Gipuzkoa-

☎ 943 552 512 / 552 516 · Fax: 943 552 816 · info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com